

Gure proiektua ilea erosotasunez lehortu nahi dutenentzat zuzenduta dago: ile-apaintzaileentzako naiz familientzako.

Segun eta norentzat den produktua gauza bat edo beste garatutagoa izango du. Hau da, maila profesional batean erabiliko bada, bateria askoz iraunkorragoa, potentzia eta osagarri gehiago izango ditu, baina ez ditu kolorezko diseinuak izango, horrela, gauza batzuetan gehiago inbertitzen dugu baina beste batzuetan aurrezten dugu. Honi esker, prezioan ez dugu izugarritzko igoerak eragingo, nahiz eta profesionalentzako ile-lehorgailu bat izan. Berriz, berezko erabilerakoa baldin bada diseinu sofistikatuago bat izango du, gainera zuk diseinatu eta pertsonalizatu ahalko duzu zure lehorgailua (honek prezioan 10€tik 20€ra arte igoera izango du), ez du hainbeste potentzia izango eta bateria gutxiago iraungo du bestean baino (horrela pisua murriztea lortzen dugu).

Beraz, produktu hau denontzat prestatuta dago, diseinu maila ezberdinak ditu eta. Ile-apaindegiak zein bere egunerokoan ile-lehorgailuak erabiltzen dituzten pertsonak gure produktuan interesatuta egongo dira Hear-dryer daukan kalitate guztiengatik, halanola kablerik gabekoa izatea, musika entzun ahal izatea zarata nekagarri baten orde, pisu gutxikoa izatea (horrela ilea lehortzearen ekintza ez da hain nekagarria sortatzen)... Guzti honengatik badakigu gure proiektua aurrera aterako dela